

Diru-sarreraren eta kostuen estimazioa

Aktiboen salmenta da enpresaren diru-sarrera, hain zuzen ere, diseinu eskusiboko baso tapa pertsonalizatuak dira aktiboak. Gainera, ordainketa bakarreko diru-sarrerak dira. Hasieran dena hasteko diru sarrerak lortuko ditugu bankuari mailegua eskatuz. Bestalde, publizitatea egiteko kamisetak saldu behar ditugu eta horrela ere gastuetarako dirua lortuko dugu. Norbaitek tapa basoarekin eosi nahiko balu ere aukera izango luke.

Prezioak finkatzeko hambost eta hemezortzi urte bitarteko gazteen artean galdeketa bat egin dugu, normalean hamabost urterekin hasten baitira gazteak festan ateratzen eta urte horien bitartean gurasoei eskatu behar izaten diete dirua. Emaitzak askotarikoak izan diren arren, batzuk oso gutxi ordaitzeko prest daude eta beste batzuk hogeituro ordatzera iritsiko lirateke, gehiengoa ados dago bost euro prezio egokia dela gure produktuarentzat eta prezio horrekin arrakasta izan dezakeela uste dugu.

Bestalde, tapa basoarekin batera erosi nahi izanez gero, logikoki hau garestiagoa izango da eta gure basoen material berarekin egindako beste dendetako prezioekin konparatuz gure basoak merkeagoak dira eta taparekin, noski, askoz babestuagoak.

Publizitatea egiteko kamisetak, berriz, hamabost eurotara saltzea erabaki dugu.

Diru-sarrerena eta kostuen estimazioa							
Kontzeptuak	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Total 2022
Diru-sarrerak							
Tapak	2.500,00	2.500,00	2.500,00	7.500,00	7.500,00	7.500,00	30.000,00
Basoak+tapak	4.800,00	4.800,00	4.800,00	14.400,00	14.400,00	14.400,00	57.600,00
Kamisetak	6.000,00	6.000,00	6.000,00	18.000,00	18.000,00	18.000,00	72.000,00
Tapa kolaboratiboak	3.200,00	3.200,00	3.200,00	9.600,00	9.600,00	9.600,00	38.400,00
Totala	16.500,00	16.500,00	16.500,00	49.500,00	49.500,00	49.500,00	198.000,00
Kostuak							
Kostu Finkoak	2.010,00	960,00	960,00	960,00	960,00	960,00	6.810,00
Web-gunearen hostinga	20,00	20,00	20,00	20,00	20,00	20,00	120,00
Lokala	900,00	900,00	900,00	900,00	900,00	900,00	5.400,00
Ekoizteko makineria	550,00						550,00
Telefonoa	540,00	40,00	40,00	40,00	40,00	40,00	740,00
Kostu aldakorra	8.150,00	8.150,00	8.150,00	24.450,00	24.450,00	24.450,00	97.800,00
Material biodegradagarriak	6.950,00	6.950,00	6.950,00	20.850,00	20.850,00	20.850,00	83.400,00
Kamiseten kostuak	1.000,00	1.000,00	1.000,00	3.000,00	3.000,00	3.000,00	12.000,00
Beste ekoizpen gastu batzuk	200,00	200,00	200,00	600,00	600,00	600,00	2.400,00
Kostu totalak	10.160,00	9.110,00	9.110,00	25.410,00	25.410,00	25.410,00	104.610,00
Eraitza zergen aurretik	6.340,00	7.390,00	7.390,00	24.090,00	24.090,00	24.090,00	93.390,00
Zergak %24	1.521,60	1.773,60	1.773,60	5.781,60	5.781,60	5.781,60	22.413,60
Eraitza garbia	4.818,40	5.616,40	5.616,40	18.308,40	18.308,40	18.308,40	70.976,40

Gure diru-sarrerak lehenengo sei hilabeteetan berreun mila euro ingurukoa izango da gutxi gorabehera. Kostuei dagokionez lokalean bost mila eta laurehun euro izango dira eta ekoizpenarentzako materialaren eta beste ekoizpen batzuen kostuak ehunmila eurokoko izango da.

Irabaziak ditugunez eta Euskal Herrian irabaziak dituzten enpresek %24ko zerga ordaindu behar dutenez, guk ogasunari hogeitabi mila euro inguru ordaindu beharko dizkiogu.

Beraz, gure irabaziak sei hilabeteetan hirurogeita hamar mila euro izango dira gutxi gorabehera.

AMIA analisia

Enpresaren estrategiak erabakitzekeo tresna bat da (**Aukera**, **Mehatxu**, **Indargune** eta **Ahulezia** hitzez osatutako akronimoa).

Gure enpresaren **Aukera** nagusia umeeek txertaketarekin pandemiari amaiera ematea izan daiteke, horrela jaiak lehen bezela egingo dira eta gure produktua gehiago salduko da.

Mehatxurik handiena konpetentzia da, gu bezalako beste enpresak arrakasta lortzeak gure enpresaren porrota eragin dezakelako. Pandemia okertzea ere mehatxua da.

Gure Indargune nagusia motibazioa da, gure enpresaren ospea eta arrakasta lortzeko helburuarekin lortutakoa. Gazteak garez energia asko dugu, baita lana egiteko gogoia ere.

Enpresari gazteak garez eta gure lehenengo proiektua denez ez dugu behar adina esperientziarik eta beraz hori da gure ahulezia.

	Alde positiboak	Alde negatiboak
Barruko faktoreak	I Indarguneak	A Ahultasunak
Kanpoko faktoreak	A Aukerak	M Mehatxuak